

## AZTERKETAREN EZAUGARRIAK

Azterketaren idazlana, egituratua izateaz gain, batua izan beharko da.

1. Sarrerak ondorengo osagaiak izango ditu:

- gaiaren mugarritzea,
- gaiaren garrantzia edota interesaren adierazpena,
- kontzeptu nagusien definizioa,
- problematikaren zehaztapena,
- hipotesi nagusiaren aurkezpena,
- eskemaren agerpena.

Sarrerak irakurlearen interesa piztea lortu eta idazlanaren ildo nagusiak finkatu behar ditu.

2. Lanaren gorputza zati eta azpi-zatietan banatuko da. Gaiaren alderdi desberdinen garapen ordenatua eta zehatza suposatzen du, ahaztu gabe, paragrafo bakoitzak, adibidez ilustratutako ideia bakar bat adieraziko duela. Paragrafo bakoitza ondo bereiztea eskatzen da. Zati eta azpi-zati bakoitza izenburu batekin izendatzeaz gain, zenbaki ala letra batekin identifikatu daiteke. Aipamenei dagokionez, textualak badira, kaxotxan artean jarri behar dira eta, kontextualak badira, ideia izendatzearekin nahikoa da.

3. Amaierak idazlanaren emaitza nagusiak batuko ditu, babestutako hipotesia gogoratuko du eta geroari buruz ala beste gai bati buruz irekiko du.

Orohar, erabilitako estiloa arriña, zehatza eta zuzena izango da, puntuazioa ondo erabiliko da eta hiztegi egokia aukeratuko da. Aurkezpenari dagokionez, paginazioa derrigorrezkoa da eta lehen orriak Titulua, Ikasgaia, Lanaren gaia, Irakaslearen izen-abizenak, Irakaslearen izen-abizenak eta Eguna agertaraziko ditu.

Lau eskema mota daude:

- historikoa: garai desberdinak bereizten ditu (70., 80. eta 90. hamarkadak, esaterako);
- tematikoa: gai edo esparru diferenteak bereizten ditu (ekonomia, politika, kultura, adibidez);
- klasikoa: tesia, antitesia eta sintesia banatzen ditu;
- neurtua: tesi bat babesten du, beti ere neurtuz eta ñabardurak agertaraziz.

Planteatutako galderaren formulazioak adieraziko dizuete zein eskema mota erabiltzea komeni den.